


asteburuko proposamenak



Bixintxotx sagardotegi afaria egingen dute larunbatean Hendaian. FRANÇOIS RIVIERE

Ziburuko bestak, Hendaiaiko txotxa

Ziburu - Hendaia › Bihar hasiko dira Bixintxoak: asteburu luze eta alaia Lapurdiko bi portutan

XAN AIRE

Neguko hotza ahanzteko izaten dira, usaian. Haize hego eta eroak lagunduko ditu aurtengo Bixintxoak. Ziburun eta Hendaian, hainbat ekitaldi antolatu dituzte asteburu luze eta alai bat pasatzeko gisan. Bihar arratsaldean hasirik, kontzertu, bazkari, afari, dantzaldi izanen dira igandea arte, Lapurdiko bi portu horien taberna, karrika eta plazetan.

Ziburun, 15:00etan irekiko dituzte 2008ko Bixintxoak, bihar. Giltzak herriko eskoletako haurrei emanen dizkiete Herriko Etxekoek. Bestetako afixa politena ere saritua izanen da. Gero, Bongo pailazoarekin arratsaldea iraganen dute herriko haur guziek, askari goxo baten inguruan. Helduak, berriz, musean arituko dira Cathy ostatuan, 20:00etatik goiti. Arratsean, dantzaldia izanen da, denentzat, Patxa Mama taldearekin, herriko plazan. Bitartean, Hendaian, elektro-triki kontzertu bat izanen da Kanttu ostatuan, Gose taldearekin, 22:00etan.

Hendaian, larunbatean antolatu dituzte ekitaldi ofizial guziak.

18:30ean, urtarrilaren 26an egin behar duten danborradaren errepika nagusia izanen da, Herriko Etxeko aitzinean. Talde bakoitzaren bandera bertan banatuko dituzte. 19:00etan, berriz, zintzurbustitza egingen da herriko ostatu eta elkarreetan. 20:00etan abiatuko da Bixintxoetako kalejira, hiri erditik Beltzenea lekura. Bertan egingen da urteroko Bixintxotxa, sagarno afaria, 21:00etan.

Ziburun, kanoi eta eskopeta zaharrekin jaurtiketa lehiaketa batekin hasiko dute larunbateko eguna. Arratsalde hastapena kirolzaleentzat egingo da: 15:30ean, Ziburu - Hossegor errugbi partida, eta 16:00etan, moto erakustaldia. 18:00etan, herriko ostatu guzietan

poteoa hasiko dute, Ziburu Euskaldun elkarteak antolaturik. 22:00etan, kantaldia izanen da Ez-tiki taldearekin, eta, ondotik, dantzaldia Kolonarekin.

Igandean, Ziburun baizik ez dira izanen ekitaldiak. Goizeko meza, 10:30ean, abesbatza eta aureskuarekin. Egurditan, tripota lehiaketa, aperitiboak lagundurik. Arratsaldean, pilota partida eta bertsolariak. Fandango lehiaketa, plazan, mutxikoak, eta dantzaldia Beñat Elizondorekin, lehen asteburua bukatzeko, eta ondokoa prestatzeko.

Zer: Bixintxoak.

Non: Ziburun eta Hendaian (Lapurdi).

Noiz: Asteburu osoan, bihar hasirik.